

Lehiaren Euskal Agintaritzak, deitutako greba Bilboko Portuko lehiaren kontrakoa dela errepikatu die zamaketerien sindikatuei

Urriaren 9tik 25era bitartean grebarako aurreabisuaren aurrean, LEA/AVCk zamaketerien jarduketak ez dezala lehiaren arautegia urratu eskatu du

BILBON, 2020ko urriaren 6an / Lehiaren Euskal Agintaritzak (LEA/AVC) Bilboko Portuko zamaketerien bost sindikaturekin –ELA, KAIA B.E.S., LAB, Coordinadora (OUTPB) eta UGT– harremanetan jarri da, haien jarduketa "langileen lan-eskubideen defentsaren barruan sar dadila" eskatzeko, "lehia eragotzi, murriztu edo faltsutu dezaketen gaietan eraginik izan gabe".


LEA/AVCk, zenbait sindikatuk legezko grebaren aurreabisua aurkeztu dutela jakin duelako egin du eskaera. Greba horrek Bilboko Portu Autonomoan merkantziak manipulatzeko dituzten edo/eta merkataritza-zerbitzuak egiten dituzten zamalanetako enpresa guztiei eragingo die, eta baita Sociedad de Estiba y Desestiba del Puerto de Bilbao, CPE (Bilboestiba) sozietateari ere, abuztuaren 8tik 28ra bitartean.

LEA/AVCk, zenbait sindikatuk legezko grebaren aurreabisua aurkeztu dutela jakin duelako egin du eskaera. Greba horrek Bilboko Portu Autonomoan merkantziak manipulatzeko edo/eta merkataritza-zerbitzuak egiten dituzten zamalanetako enpresa guztiei eragingo die, eta baita zamalanekin erlazioatutako merkantziak manipulatzeko edo/eta merkataritza-zerbitzuak egiten dituen edozein langileri eta Sociedad de Estiba y Desestiba del Puerto de Bilbao, CPE (Bilboestiba) sozietateari ere, urriaren 9tik 25era bitartean.

Abuztuan azkenean egin ez zen greban ez bezala, greba aurreabisu honek ez die eragiten soilik zamalanekin zuzenean erlazioatutako lanei, baita merkataritzako beste zerbitzu batzuei eta zamalanen esparrutik kanpo dauden langileei ere, eta, ondorioz, lehiaren ikuspuntutik inplikazio garrantzitsuak izan ditzake.

Langileen lan-baldintzak defendatzeko sindikatuen eginkizuna erabat errespetatuz, eta grebaren deialdirako aurkeztu diren arrazoiak baloratzen hasi gabe, LEA/AVCk uste du, estatuko eta EBko auzitegien doktrinaren arabera, enpresen eta langileen ordezkarien arteko hitzarmen kolektiboak ez direla era automatikoan geratzen ezarpen askatasunari eta zerbitzuak modu librean emateari buruzko lehiaren arauak eta EBko Funtzionamendu Tratatu arauak aplikatzetik kanpo.

Era berean, jakinarazten du, Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 1.1 artikulua debekatu egiten duela taldeko akordio, erabaki edo gomendio oro, edo hitzartutako



praktika edo nahita paraleloa den jarduera oro, horien helburua ondorengoa bada edo izan badaiteke: merkatu nazional osoan edo zati batean lehia eragotzi, murriztu edo faltsutzea.

LEA/AVCk gogorazi nahi du duela denbora gutxi CNMCK Lehiaren Defentsareko Legearen 1. artikuluaen aurkako jokabideengatik erakunde hauek zigortu dituela: Asociación Nacional de Empresas Estibadoras y Consignatarias de Buques (ANESCO), Comisiones Obreras (CCOO), Coordinadora Estatal de Trabajadores del Mar (CETM), Confederación Intersindical Galega (CIG), Eusko Langileen Alkartasuna (ELA), Langile Abertzaleen Batzordeak (LAB) eta Unión General de Trabajadores (UGT)

Lehiaren Euskal Agintaritzari buruz

Lehiaren Euskal Agintaritza, administrazio izaera duen erakunde autonomoa da, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailari atxikia, eta autonomia organikoa eta funtzionala du bere eginkizunak betetzeko Euskal Autonomia Erkidegoan. Bere helburu orokorra merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatzea, bermatzea eta hobetzea da, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jarduketara ekonomikoei dagokienez.